

LEHARREI MENDI LASTERKETA

ARAUDIA 2022

1.- DATA ETA LEKUA

Leharrei Mendi Lasterketa, 2022ko apirilaren 2an, izango da. Ibilbide luzearen irteera goizeko 09:30ean izango da, eta motzekoena, berriz, 10:00etan. Irteera eta amaiera puntuak Gabiriako herrigunean izango dira bi kasuetan.

2.- IBILBIDEA

Gabiriako auzo eta mendietan barrena pasatzen den lasterketa da. Luzeak 24 km-ko ibilbidea du eta 1.300 m-ko desnibel positiboa, eta motzak 15 km eta 800 m positibo.

3.-IZENA EMATEA

Izena ematea:

- IBILBIDE LUZEA 25 €
- IBILBIDE MOTZA 20€

* Lasterketa egunean 18 urte bete gabe dituenak ezingo du parte hartu.

** Izena emateko epea: 2022ko otsailaren 1etik martxoaren 27ra arte: soilik internetez egin daiteke, <http://www.kronoak.com> webgunean.

*** Inskripzioa ordaindu ez duen korrikalaria ez da sartuko ez izena emandakoen zerrendan, ezta itxarote-zerrendan ere.

4.- PARTE HARTZEARI UKO EGITEA

Martxoaren 20a baino lehen parte hartzeari uko egiten diotenei (egun hori barne) dirua itzuliko zaie. Egun horretatik aurrera egiten dutenei ez. Martxoaren 28tik aurrera (egun hori barne) izena ematea ezingo da baliogabetu.

Ibilbide luzean 150 parte-hartzaileen muga gainditzen den unean, eta/edo motzean 100 korrikalarirena, itxaron-zerrenda irekiko dugu eta zerrenda horretan izena emateko email bat bidali beharko da leharrei@leharrei.eus helbidera. Jasotze data eta orduaren arabera izango da itxaron-zerrendako korrikalarien hurrenkera.

5.- SEGURTASUNA

Antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu. Gurutze Gorriaren laguntza izango dugu.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

Parte hartzaile bakoitzaren erantzukizuna izango da antolakuntzak eta administrazioak lasterketa egunerako zehaztutako segurtasun neurri guztiak betetzea, bai covidarekin lotutakoak, eta baita gainerako guztiak ere.

6.- KONTROLAK

Proban zehar antolakuntzak kontrol-guneak jarriko ditu. Bertatik igarotzea ezinbestekoa izango da eta dortsala agirian eraman beharko da.

Ibilbide luzeko kontrol jakinak eta pasoko denborak
(gehienez): 1- Aizelekun paso-kontrola (13,5km): 3
ordu 2- Helmuga (24km): 4 ordu 30 minutu.

Denbora hauek kalkulatuta daude proba 4:30 ordutan amaitzeko. Denbora hauetatik aurrera, lasterkariaren ardura izango da bere kabuz helmugara iristea.

6.- HORNIDURA

Helmugakoaz gain, 5 hornidura puntu atonduko dira ibilbide luzerako eta 2 ibilbide motzerako. Postu hauetan freskagarriak eta janaria eskainiko zaizkie parte-hartzaileei.

7.- SAILKAPENA <http://www.kronoak.com> webgunean argitaratuko da sailkapena.

8.- DORTSALEN BANAKETA

Dortsalak eta lasterkariaren poltsa Osinalde Elkartean banatuko dira. Ordutegiak:

Ostiralean: 18:00-20:00

Lasterketa egunean: 08:00etatik – 09:00etara.

9.- INGURUGIROA

Lasterketa mendi inguru zein lur pribatuetatik igaroko da. Ingurunea ahal beste zaintzeko, kontrol-guneetatik kanpo zaborra ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei. Helburu horretarako, hornitze guneetatik gertu zaborrontziak ezarriko dira.

Oinarrizko arau hau betetzen ez duten korrikalariak probatik kanpo utziko dira.

10.- DUTXAK

Arauek baimentzen badute, herrigunean izango da dutxa mistoen zerbitzua.

11.- IBILBIDEAREN SEGURTASUNA

Antolakuntzak, proba ordezkotako ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

12.- LAGUNTZA EZBEHARRETAN

Parte-hartzaileek istripuren bat izan duen edonori laguntza eman beharko diote eta honen berri eman hornidura guneetan.

13.- ERANTZUKIZUNA

Proban izena ematen duten guztiek, borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideak eta beraien oinordekoek erantzukizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak, ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere, antolakuntzak ez du ardurarik izango. Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonari eragindako kalte ororen erantzukizuna.

14.- PARTAIDE KOPURUA

Probaren gehienezko parte-hartzaile kopurua: 150 ibilbide luzean eta 100 ibilbide motzean.

15.- ARAUDIAREN ONARPENA

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartuko dute. Bertan agertzen ez dena EMF-FVM-ren araudia kontuan izanda ikusiko da.

ARGIBIDEAK: leharrei@leharrei.eus